



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Fikziozko lurraldeak

arkitektura / geltokiak / sexuen hizkuntza

Tranbiaren itxaron guneko paretako iragarlean, Bilboko irudi apokaliptiko bat. Honelakoa: bataila baten zeru gorridunean girotuta, Bilbao Arena kirol eraikin berdea herriaren gainetik gailentzen den gotorleku baten lez ageri da. Eraikinak superheroi funtzioa betetzen du irudian, herria metalezko espazio-ontzi hegalaria mehatxatzaile batetik babesten ari baita. Publizistak ongi harrapatu du –hirigileak ez bezala– Bilboko Miribilla auzoak, kokapen geografiko goratuan, Erdi Aroko gune gotortu baten itxura duela; edo beste modu batean esanda, auzo berraren ezarpenak ez duela inguratzen duen testuinguru urbanoarekin zerikusirik. Kasualitatez –edo ez–, azken hamarkadetakoa hirigintzak Bilborako eskaini dituen kirol ekipamendu berriek, San Mames Barria eta Bilbao Arena, hiriarekiko domeinuzko kokalekuak dituzte, garai bateko gazteluen antzera. Bide batez, deskribaturiko kartelak bideo jokoen liga profesionaleko finala iragartzen zuen, poesia urbanistikotik urruti, baina, aldiz, zintzotasun osoz bat eginez Bilbok 2018. urterako ezarritako ekitaldi-festivalen ibilbide orriarekin.

Hitez eta irudiz eraikitako horrelako errealitate paralelo edo fikzionatuek egiazko errealitatearen zenbait argibide erakusten dituztela sinetsirik, irudimen-jolasarekin jarraituko dut beste honekin: barbaroen konkista-irudi arketipotik tiraka, kostaldetik astiro eta gelditu gabe Donostiara gerturaten den gurutzaontziarena, turistaz erabat josia.

Gurutzaontzia, arrotza eta ezezaguna zaigun herri batetik datorren munstrotzat har dezakegu, tamainari erreparatzen badiogu adibidez. Abordatzeak errentagarritasuna izan dezan, ontziaren tamaina garrantzitsua da; bada, Donostiako zabalguneko edozein etxebizitza-eraikinekin konparatuz, esan dimentsio erraldoiak dituela. Eta nor ez da beldurtuko neurririk gabeko jendetzak, hiriaren adeitasun-tasa gaindituta, hirian desjabetze-efektua duenean, jendetza hori zoren pare bertako baliabideak ustiatzera heltzen denean? Kolonizazio moderno honek antzinakoaren pareko ondorioak eragiten ditu lehorreratutako lurraldean bere legeak inposatzen ditunean, bertakoen bizitza erabat lardaskatuz.

Ez da broma, industria turistikoa fikziozko lurraldeen eraikitzaile da; plantak egiten dituen eszenografia fisikoak gustuko ditu. Herrixka eta hiri askoren alde zaharrak errealitate simulatu bilakatu dituzte, non kaleak atrezzoak besterik ez diren. Fatxada historikoak X izpiekin zeharkatuko bagenitu, prekaritatea nagusi den logelak ikusiko genituzke, bizi-espazioak trasteleku bilakaturik, “Trainspotting” garaikidea grabatzeko prest.

Kondaira modernoetako protagonista maltzuraren papeira hirigintza eta lurralde antolakuntzak hartu dute, lurralde eta hiriak mugarik gabe ustia garriak direla diseinatzerakoan. Irudi fikzionatuak distopiko gerta ez daitezten, kritikoki begira diezaigun gure herri eta hirietan gertatzen ari denari. Munstroak irentsi baino lehen. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

3 BEGIRADA: